



Eskuko telefono eta erloju adimendunen erabilera-arauak, ikastola eremuan

Zer dira eskuko telefono eta erloju adimenduak? Zein gailu hartzen dira kontuan honako jarraibideetan?

- o **Eskuko telefono adimendunak.** Eskuko telefono adimendunak uztartu egiten ditu eskuko telefonoaren eta ordenagailuaren funtzionalitateak eta aukerak: Internetera sartzeko, telefono-deiak egin eta jasotzeko, mezu elektronikoak eta SMSak bidali eta jasotzeko, jakinarazpenak jasotzeko eta sare sozialak kontsultatzeko. Horrez gain, irudiak eta soinuak jasotzeko aukera ere eskaintzen du.
- o **Erloju adimenduna.** Erloju adimenduna eskumuturreko erlojua da, eta ohiko erlojuetatik harago, honako ekintzak burutzeko funtzionalitateak eta aukerak eskaintzen ditu: Internetera sartzeko, telefono-deiak egin eta jasotzeko, mezu elektronikoak eta SMSak bidali eta jasotzeko, telefono adimendunetik jakinarazpenak jasotzeko eta sare sozialak kontsultatzeko. Horrez gain, inguruko irudiak eta soinuak jasotzeko aukera ere eskaintzen du.

Testuingurua

Azken bi hamarkadetan eta aurrekaririk gabeko erritmo esponentzian, teknologia digitalek erabat aldatu dute pertsonok komunikatzeko, sortzeko, partekatzeko eta ikasteko dugun modua. Teknologia digitaletan egindako aurrerapen handiek rresten dute beharrezkoa dela erantzuna ematea berrikuntzekin lotutako erronka teknologiko, etiko eta sozialei; izan ere, aldatzen ari dira bizimodua eta lan egiteko era.

Testuinguru horretan, teknologia digitalak hezkuntza-maila guztietan sartzea proposatzen du Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa



Digitalerako Planak (2022-2024), irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak hobetzeko eta, dibertsifikatzeko teknologia horien bidez, konpetentzia digitalak garatzeko. Plan honen xedea da, alde horretatik, ikasleek, langileek, hezkuntza-erakundeek eta familiek mekanismoak izatea teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukera ugarietaz baliatzeko, bai irakasteko edo ikasteko orduan, bai komunikatzeko eta sortzeko unean.

Komunikazio-teknologien aurrerapenak, bereziki telefono mugikorren erabilerak, eragin zuzena du ikasleen garapenean eta elkarreraginean. Alde horretatik, beharrezkoa da esparru digitalean ere bizikidetzaren positiboa erraztuko duten ohiturak, jarrerak eta estrategiak bultzatzea; izan ere, teknologiek aukera eta hobekuntza berriak emateaz gain, arrisku- eta mehatxu-iturri ere badira, eta horiei aurre egin behar zaie.

Ziberbizikidetzaren ahalbidetu dadin, beharrezkoa da hezkuntza-maila guztietako ikasleak informazio- eta komunikazio-teknologien erabilera seguruan hezteko, batez ere haien erabilera arautu behar duten printzipio moral eta etikoetan.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da neurri eta erabaki pedagogikoak hartzea telefono mugikor eta erloju adimentsuen erabilera egokia sustatzeko, eta horretarako azpimarratzen dira beharrezko prebentzioa, segurtasuna eta kode etikoa.

Sakelako telefono eta erloju adimentsuen erabilera-irizpideak ikastola eremuan

Uzturpe Ikastolak erabaki du aipatutako gailu digitalen erabilera arautzea eskola-jardunean, hau da, eskola-ordutegian, jolas-orduetan, ikastolak eskaintako zerbitzuetan (jantokian, garraioan...), baita jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan ere. Horretarako honako neurriak hartzen ditu:

- Ikasleek ezingo dute eskuko telefono eta erloju adimentsuen erabili, eskola jardunak irauten duen bitartean.
- HH eta LH mailetako ikasleek ezingo dute eskuko telefonorik ekarri Ikastolara.
- DBHko ikasleek, telefonoa Ikastolara ekartzen baldin badute, norberak bere armairuan gorde beharko du itzalita, giltzapean eta norberaren ardurapean.



- Telefono mugikorrek eta ordulari adimentsuak ez ekartzea gomendatzen du Ikastolak.

Arau-haustek: ezarriko diren neurriak

- Ikasleren batek aipaturiko gailu digitalen erabilerako arauak urratuko balitu, irakasleak jasoko du gailua (gutun-azal batean sartuko du, irakasle eta ikaslearen izen-abizenak, ikastaldea, data, tokia eta ordua idatzita). Irakasleak gailua zuzendaritzan utziko du eta tutoreari jakinaraziko dio.
- Tutoreak ohartarazpena idatziko du Alexia bidez (jokabide desegokia) eta familiari deituko dio telefonoz gailuaren bila etortzeko.
- Tutoreak, familiak eta ikasleak, elkarlanean, arau hauek betetzearen garrantziaren inguruko hausnarketa eta lanketa burutzea bultzatuko da. Era berean, gailu hauen erabilera egokirako gakoak eta aholkuak gogoraraziko dira.
- Ikasleak bigarren aldiz araua hautsiko balu, gauza bera egingo da; baina tutoreak Alexiako ohartarazpenean adieraziko du bizikidetzaren aurkakoa dela. Tutoreak familiari berriz telefonoz jakinaraziko dio.
- Hirugarren aldiz araua hautsiko balu, bizikidetzarako larriki kaltegarria dela ipiniko da. Kasu honetan, Zuzendaritzak neurriak ezarriko ditu Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko Dekretuaren arabera (*Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa*).
- Guraso edo lege arduradunen gain gelditzen dira, betiere, gailuen erabilera okerrak ekar ditzakeen ardura eta ondorio legalak.

Familia eta hezitzaileentzako aholkuak

- Izan zaitez eredu teknologia berrien erabilera zuzena eginez.
- Garrantzitsua da koherentziaz jokatzeko ikasleei eskatzen diezunaren eta zure mugikorra edo Internet erabiltzeko moduaren artean.



- Partekatu denbora eta informazioa ikasleekin. Irakatsi erabilera-jarraibide egokiak ikasleei. Hitz egin haiekin ahal bezainbeste.
- Interesa zaitez erabiltzen dituzten sareko tokiez, zer egiten duten eta norekin erlazionatzen diren jakiteko, baina ikasleen pribatutasuna inbaditu gabe.
- Sustatu segurtasun-ohiturak ikasleen artean: informazio pertsonalik eta pasahitzik ez ematea, kreditu txartelik ez erabiltzea, ezezagunekin ez geratzea.
- Sustatu ikasleen intimitatearen babesa teknologia berriak erabiltzean: argitaratzen dutenaren gaineko erantzukizuna hartzea, informazio eta datu pertsonalak ez ematea inoiz ere, web-kameraren erabilera saihestea, argazkiak ezezagunekin ez partekatzea, etab.
- Sustatu pentsamendu kritikoa Interneten ageri denaren gainean.
- Irakatsi ziberbizikidetza- eta netiketa-arauak.
- Ezagutu eta zabaldu sareko jokabide egokiak eta errespetuzko arauak: erabilera egokia eta besteekiko begirunea azpimarratu behar dira, baita argitaratu aurretik hausnartzearen komenigarritasuna eta gehitzen ditugun kontaktuekin zorrotzak izatearen garrantzia ere.
- Nori eskatu laguntza behar denean? Argi utzi ikasleei zer edo zer arraroa edo desatsegina jasotzen edo aurkitzen badute, guraso edo hezitzaileekin hitz egin behar dutela. Komunikazio-kanal bat irekita uztea komeni da, behar badute laguntza eska dezaten. Horretarako, arazoren batekin guregana jotzen dutenean, gehiegizko erreakzioak alde batera utzi behar ditugu. Lasaitasunez eta baretasunez erantzun behar dugu kasu horietan. Argi utzi, hezitzaile gisa, beren esanetara zaudela edozein arazoren aurrean laguntzeko.
- Edonola ere, badira doako telefono konfidentzialak ere, nerabeei eta familiei larrialdi kasuetan aholku emateko. Esaterako, IS4K laguntza telefonoa 017, eta Eusko Jaurlaritzako haurtzarorako eta nerabesarorako laguntza zerbitzuko telefonoa 116 111.



Formazioa eta prebentzioa

Neurri horiek hezkuntza-komunitateari jakinarazi beharko zaizkio. Aldi berean, sakelako telefono eta erloju adimendunak gehiegi erabiltzearen arriskuei buruzko sentsibilizazio-ekintzak sustatuko dira.

Ikastolak eskolako ziberjazarpena edo abusu-egoerak prebenitzeko jarduerak aurreikusi behar ditu baliabide teknologikoen bidez, bizikidetza-planean, orientazio- eta tutoretza-planetan, eta ikastolako proiektu digitalean, prebentziorako jarrera aktiboak eta mekanismoak areagotzeko.